

[susa](#) | [literaturaren zubitegia](#) | [literatur emailuak](#) |
[armiarma](#) | [klasikoak](#) | [aldizkarien gordailua](#) |
[basquepoetry](#) | [euskarari ekarriak](#)



[kritiken hemeroteka](#)

7.423 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

Azken kritikak

« [Maitasun bila](#) | [Kortazar](#) »

Urrutira bidalia / [Li Bai](#) (*Albert Galvany / Pello Otxoteko*) / Alberdania, 2005

Urrutitik ekarria Inma Errea / *Eizie.org*, 2005-09-16

Kirmen Uribe poetak esana du euskaldunok kanpotik hartzen dugula gure lapiko txikian ez duguna. VIII. mendeko Li Bai poeta txinatarraren 49 poema biltzen dituen liburu hau horixe da: gure lapiko txikira urrunetik —ekialdetik— ekarritako osagai exotiko bezain gutziagarria.

49 olerki horiek lagin txikia dira, haien herrikideek poeta hilezkortzat duten Li Baik idatzitako 1.100 olerkiren aldean. Baina lagin txikia izanagatik ere, balio handikoa da. Otxotekok eta Galvanyk Li Bairen poemak aukeratzean kontuan hartu dituzten irizpideak askotarikoak izan dira, eta horien artean aipagarri da poema batzuk Mendebaldean argitaratutako beste antologietan daudelako hautatu dituztela, eta beste zenbait, ordea, inongo antologiatan bildu ez direlako. Txinatar kulturen hain ohikoa den kontrakoaren sintesi ezin aproposagoa, inondik ere.

Behin olerkiak hautatuta Albert Galvany sinologoak txinera klasikotik zuzenean itzuli eta Pello Otxoteko poetak forma eman die euskaraz, eta horretan emandako denbora ez da txikikeria: bost urte, bost uda, Li Bairen poema eder bezain sentigarriak euskararen lapiko txikira ekartzeko, eta, Bernardo Atxagak Hitzaurrean dioenari jarraikiz, “proposamen poetiko berriak” eskaintzeko.

Honako hau ez da Li Bairen poemak —ezta beste txinatar poeten olerkiak ere, Du Furenak, kasu— gurera ekartzen dituzten lehen aldia: Joseba Sarrionaindiak, Itxaro Bordak edo Rafa Egigurenek egindako itzulpenak ditugu aurrekari.

Galvanyk eta Otxotekok itzultitako poemaz bezainbatean, haien leitzeak plazer ematen du, eta jakin-mina piztu. Hagitz deigarri dira —eta agian ez oso zuzenak, egungo hainbat pentsamolderen arabera— ardoari eta edateari Li Baik eskainitako poemak, horietako hiru, —*Ilargipean edaten* (I eta II), eta **Bedatsean horditurik ene sentimenduak azaldu*— Sarrionaindiak aspaldi itzuliak, *Alkohola poemak* liburuan. Poema horietan agertzen ditu Li Baik bizitzari aurre egiteko dituen sinesmenetariko hainbat, eta horren adibide ditugu, kasu baterako, “Mundua amets handia bada, / zertan honenbesteko nekea? / Hortaz, egun osoa horditurik natza” edo “Ardotan baizik ez da lortzen plazera” dioten bertsoak.

Dударик gabe ikuspegi epikureoa da Li Baik jorratzen duena. Ikuspegi hori, ordea, ez da soilik islatzen ardoari eta edateari eskainitako poemetan. Adiskidetasunaren gorazarrea egitean, natura zolitasunez deskribatzen duenean (“Mendiko loreak, musugorri; / sugarrak, ipurtargi uretan.”, “Gailur zaharrea hodei oihala zarrastatua”, “Banbu artean ez da giza hotsik entzuten, / urmael gainean ilargia alferrik dirdaitsu”...), maitasunaz mintzatzean edo boteretsuen bizimodua kritikatzean, sentipenei eta plazerari heltzen die.

Hala ere, Li Baik askoz gauza gehiago eskaintzen digu —sakontasun handiko pentsu sakonak eta sentimendu landuak, besteak beste—, eta *Urrutira bidalia* liburuak ere bai: Li Bairen poesian barnako paseo kitzikagarriaz gain, Otxotekok eta Galvanyk Txinako poesiaren gakoak ezagutzeko egiten diguten gonbita ere profita dezakegu, haren orrietan. Topak merezi baitu!

Azken kritikak

[Trikua esnatu da](#)

[Lorea Agirre / Idurre Eskisabel](#)

Irati Majuelo

[Feminismoa % 99ren alde](#)

[Askoren artean](#)

Amaia Alvarez Uria

[Lurra eta dardara](#)

[Askoren artean](#)

Igor Estankona

[Miñan](#)

[Amets Arzallus Antia](#)

Javier Rojo

[Poesia kaiera](#)

[Louis Aragon](#)

Joannes Jauregi

[Arimaren etorkizuna. Estandar emozionalaren sorrera](#)

[Eva Illouz](#)

Ibai Atutxa Ordeñana

[Iturria](#)

[Unai Elorriaga](#)

Estibalitz Ezkerra

[Bazterreko ahotsak](#)

[Miren Tirapu Goikoetxea](#)

Javier Rojo

[Izendegi hutsa](#)

[Fito Rodriguez](#)

Mikel Asurmendi

[Naufragoen altzoa](#)

[Gorka Setien](#)

Igor Estankona

[Etxeak eta hilobiak](#)

[Bernardo Atxaga](#)

Ibon Egaña